

BASAJAUNAREN AHOTSA

Aralarko kondaira bat



Basoak badu zer kontatua...

BASOAREN SEKRETUA

Entzun al duzue inoiz Basajaunaren ahotsa?...

Ez?

**Ba... hurbil zaitezte, hurbil zaitezte, basoak
gordetzen duen sekretua kontatuko dizuet eta...**

Aralarko mendietan izaki handi-handi bat bizi omen da, goroldiozko bizarra eta begi dirdiratsuak dituen. Berak babesten ditu basoko animaliak, basoko zuhaitzak... baita basoari errespetuz entzuten dakiten gizakiak ere.

Egun batean, Erramun artzaina basoan zebilen bere ardi taldearekin. Erramun, oso gizon serioa zen. Bakar-bakarrik bizi zen etxola zahar eta zikin batean, mendi gailurrean, eta ez zuen inolako harremanik herriko jendearekin.

Bere animaliak askotan mesprezuz tratatzen zituen eta ez zuen inor maite, bere burua baizik.

ARDI GALDUA

Halako baten, Erramuni ardi bat galdu zitzaion basoan. Haserre, bere bila joan zen basoan barrena, artaldeak atzetik jarraitzen ziola, eta hantxe topatu zuen ardi gaixoa, dardarka, adaxka batzuen artean ezkutaturik.

Erramunek orduan lurreko adaxka bat eskuan hartu, ardi gaixoari lepotik heldu, eta DANBA! kolpe galanta eman zion buruan.

Kolpea entzun eta berehala, haize bortitza altxatu zen. Inoizko haize boladarik bortitzena! Haizeak, Erramunen txapela hegan eraman zuen urruti.

Ardi galdua, izututa, korrika joan zen artaldearekin, eta ardi guztiak elkarrekin zeudenean, basoko iluntasunean murgildu ziren, Erramun atzean utzirik.

— Arranopola! Ardi madarikatuak! Harrapatzen bazaituztet ikusiko duzue! Zuenak egin du!

BASAJAUN AURREAN

Bapatean, magia edo, iluntasuna gailendu zen. Eta ixiltasuna. Erramun artzainak hiru urrats eman zituen aurrera, ezer ikusten ez zuela: 1, 2, eta ... 3. Bapatean, Basajaunekin topo egin zuen.

“Gure lurrak, gure animaliak, gutarrak zaintzen ez badituzu, lur honek zorigaitza ekarriko dizu bueltan.”

— Bai zera! Niri ez dit inork esango zer egin behar dudan nire animaliekin... Utikan!

Baina, orduan, Basajaunek artzaina harrapatu, lepoan hartu eta basoko putzu sakon batera bota zuen.

XIMUNEK AHOTSA ENTZUN DU

Gau hartan, Erramunen iloba, Ximun, mendira igo zen osabaren eta ardi galduen bila. Zer egingo zenukete zuek basoak hitz egingo balizue? Harrituta geratuko zinatekete, ezta? Ba... halaxe gertatu zitzaion gure protagonistari.

— Ximun, Ximuuuun... — xuxurlatu zuen ahots batek zuhaitzen hostoen artean —. Ez zapaldu sustraiek atsedean hartzen duten lurra. Ez hartu zuretzat legez ama lurrarena dena.

Ximunek ingurura begiratu zuen, dardarka. Eta hantxe ikusi zuen Basajaun, parez pare bere aurrean: haritza bezain handia, ilea gariz txirikordatuta.

BASAJAUNEN HITZA

“— Ez beldurrik izan — esan zion erraldoiak. Bihotz onekoa zarela badakit, zure osaba ez bezala. Ardiak bueltatuko dizkizut, eta osaba non dagoen esango dizut. Baina trukean, lurra zaintzen erakutsiko dizut, zuk herriari erakusteko. Inoiz ahaztu ez dezazuen Ama Lurra zaintzea guztion ardura dela.”

Egun hartatik aurrera, Ximunek lurrari kalterik egin gabe ereiten ikasi zuen, ezer beharrik gabe suntsitu gabe egurra mozten, abereak begirunez zaintzen.

Osaba Erramuni eta gainontzeko bizilagunei Basajaunek irakatsitakoa helarazi zien eta haiek ere jarrera hobetu zuten. Geroztik, uzta ezinhobeak eta animalia osasuntsuak izan zituzten herrian.



BASOAREN BIHOTZA

Gaur egun oraindik ere, haizeak Aralarretik jotzen duenean, basoaren bihotzetik ahots hari bat entzun daiteke, behin eta berriro errepikatzen duela:

“Zaindu basoa, eta basoak zainduko zaitu.”

AMAIERA